TIMBRE FORAL
FORU SEILUA

25 PTA
DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
VEINTICINCO / HOGEITABOST PTA

G 9841400

CLASE 2ª.
2. MOETA

# Fundación

Museo de Bellas Artes de Bilbao

# Fundazioa

Bilboko Arte Eder Museoa

## Estatutos de la Fundación

## Fundazioaren Estatutuak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
*Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa*
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
*Registro de Fundaciones del País Vasco*

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.-** *Constitución, denominación y duración*

El Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao constituyen una fundación cultural privada, denominada "Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao-Bilboko Arte Eder Museoa Fundazioa" (en lo sucesivo Fundación), al amparo de lo previsto en el artículo 34 de la Constitución española, y de acuerdo con cuanto establecen las demás disposiciones legales vigentes, sin ánimo de lucro, de carácter permanente y duración indefinida.

Sin perjuicio de la denominación señalada en el párrafo anterior, se considerará igualmente como tal, la empleada exclusivamente en una de las dos lenguas en que viene expresada, cuando se haga en un documento redactado en la correspondiente lengua.

**Artículo 2.-** *Régimen jurídico, personalidad y capacidad jurídica*

La Fundación tiene personalidad jurídica propia e independiente y plena capacidad jurídica y de obrar, sin otras limitaciones que las establecidas en la manifestación de voluntad de los fundadores en el acto fundacional, en los presentes Estatutos y en las disposiciones legales que le sean de aplicación, en particular, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

**Artículo 3.-** *Ambito territorial*

La Fundación desarrollará sus actividades principalmente en el País Vasco.

**Artículo 4.-** *Domicilio*

La Fundación tendrá su domicilio en el Museo de Bellas Artes de Bilbao, en Plaza del Museo, número 2.

**Artículo 5.-** *Fines fundacionales y objetivos*

1. La "Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao" tiene por objeto la dirección, mantenimiento, conservación y promoción del Museo de Bellas Artes de Bilbao, que reunirá, conservará y exhibirá, con carácter universal y multidisciplinar, el arte antiguo, moderno y contemporáneo con el fin de servir de instrumento de educación artística de la sociedad.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.-** *Eraketa, izena eta iraupena*

Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak fundazio kultural pribatua eratu dute, "Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao – Bilboko Arte Eder Museoa Fundazioa" izenekoa (aurrerantzean Fundazioa), hain zuzen ere. Egin ere, Espainiako Konstituzioaren 34. artikuluan ezarritakoaren babesean eta indarrean dauden legezko gainerako xedapenek ezarritakoarekin bat etorriz egin dute. Fundazioak ez du irabazi asmorik, izaera iraunkorra du eta iraunaldi mugagabea.

Aurreko paragrafoan adierazitako izenaren kalterik gabe, izentzat hartuko da, halaber, izena adierazteko erabilitako bi hizkuntzetako batean baino ez badago, hizkuntza horretan idatzitako agiri batean idazten denean.

**2. artikulua.-** *Araubide, nortasun eta gaitasun juridikoa*

Fundazioak nortasun juridiko berezi eta independentea dauka, bai eta gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa ere. Fundazioak, hala ere, baditu zenbait muga: fundatzaileek fundazioaren ekitaldian agertutako borondate-adierazpenean daudenak, Estatutu hauetan bildutakoak eta ezar daitezkeen gainerako lege xedapenetakoak, bereziki, Euskal Herriko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legekoak.

**3. artikulua.-** *Lurralde eremua*

Fundazioak batez ere Euskal Herrian egingo ditu jarduerak.

**4. artikulua.-** *Egoitza*

Fundazioaren egoitza Bilboko Arte Eder Museoan egongo da, Museo plazaren 2. zenbakian.

**5. artikulua.-** *Fundazioaren xede eta helburuak*

1. "Bilboko Arte Eder Museoa Fundazioa"k ondoko xedea dauka: Bilboko Arte Eder Museoaren zuzendaritza, mantenimendua, artapena eta sustapena. Antzinako artea nahiz arte modernoa eta garaikidea bildu, artatu eta erakutsiko du, izaera unibertsalarekin eta askotariko disziplinaduna, gizartea artean hezitzeko bitarteko izan nahian.

TIMBRE FORAL
FORU SELLUA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco
CLASE 2.ª
2.ª MOETA
25 PTA
DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
VEINTICINCO / HOGEITABOST PTA
G 9841396

2. Para ello se establecen los siguientes objetivos:

a) Conservar, estudiar y exhibir la colección del Museo de Bellas Artes de Bilbao

b) Promover su constante enriquecimiento con nuevos elementos de calidad y de interés.

c) Organizar un programa de exposiciones de arte antiguo, moderno y contemporáneo destacado a nivel internacional y con una particular dedicación a las manifestaciones del arte vasco.

d) Contribuir a la proyección de la imagen de Bilbao, Bizkaia y el País Vasco.

e) Realizar otras actividades complementarias que tengan como finalidad la promoción o realización de manifestaciones culturales, conferencias, ediciones de libros, catálogos y otras publicaciones, concesión de becas y ayudas y, en general, cualesquiera otras actividades similares, siempre que sean compatibles con los fines fundacionales.

f) Facilitar la formación de profesionales cualificados en la gestión de museos dentro de la Comunidad Autónoma Vasca.

g) Cuantos otros vinculados a los anteriores se consideren convenientes.

**Artículo 6.-** *Finalidad y Beneficiarios*

La finalidad de la Fundación sirve a un interés general, pudiendo ser beneficiarios de la misma cualesquiera personas naturales o jurídicas que resulten favorecidas por sus actividades, sin discriminación alguna.

La percepción de cantidades por la prestación de cualquier servicio o la determinación de normas de acceso a los fondos artísticos, se establecerán por el Patronato conforme a los principios de generalidad y no discriminación a cualquier potencial beneficiario. Nadie podrá invocar derecho privilegiado para el disfrute de las actividades fundacionales.

## TÍTULO II

## ÓRGANOS DE LA FUNDACIÓN

**Artículo 7.-** *Órganos de la Fundación*

Son órganos de la Fundación:

a) El Patronato
b) El Comité Ejecutivo
c) El Comité Asesor Artístico
d) Los demás que el Patronato estime oportuno crear

2. Horretarako, ondoko helburuak ezarri dira:

a) Bilboko Arte Eder Museoaren bilduma artatu, aztertu eta erakustea.

b) Etengabe aberastea, kalitateko elementu interesgarri berriak eskuratuz.

c) Antzinako artearen nahiz arte moderno eta garaikideko erakusketen egitaraua antolatzea, nazioartean garrantzi handikoa eta euskal arteari arreta berezia eskainiko diona.

d) Bilbo, Bizkaia eta Euskal Herriaren irudia mundu zabalean ezagutaraztea.

e) Beste jarduera osagarri batzuk egitea, besteak beste, kultur adierazpenak, hitzaldiak, liburu, katalogo nahiz beste argitalpen batzuk, bekak eta dirulaguntzak ematea eta, oro har, antzeko beste edozein jarduera, beti ere, bateragarriak baldin badira Fundazioaren xedeekin.

f) Museoen kudeaketan profesional gaituak trebatzen laguntzea, Euskal Autonomia Erkidegoan.

g) Aurrekoekin lotuta egokitzat jotzen diren gainerakoak.

**6. artikulua.-** *Helburua eta onuradunak*

Fundazioaren helburua interes orokorraren menpe dago: beraren onuradun edozein pertsona natural zein juridiko izan daiteke, haren jardueren onurak jasotzen dituzten neurrian, inolako bereizkeriarik gabe.

Edozein zerbitzu emateagatiko diru-kopurua jasotzea edo arte-ondarera iristeko arauak zehaztea Patronatuaren ardura izango da, eta, beti ere, orokortasun eta onuradun izan daitezkeenen bazterreratze-eza printzipioetan oinarrituta. Inork ezin izango du eskubide pribilegiatua eskatu Fundazioaren jarduerak gozatzeko.

## II. TITULUA

## FUNDAZIOAREN ORGANOAK

**7. artikulua.-** *Fundazioaren organoak*

Fundazioaren organoak honakoak dira:

a) Patronatua.
b) Batzorde Betearazlea.
c) Batzorde Aholkuemaile Artistikoa.
d) Patronatuak sortu nahi dituen gainerakoak.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

## SECCIÓN 1ª

**Artículo 8.-** *El Patronato*

1. El Patronato es el órgano supremo de gobierno y representación de la Fundación, y ejercerá todas aquellas facultades que sean necesarias para la realización de los fines fundacionales.

2. En particular, corresponde al Patronato:

   a) Velar por el cumplimiento de los fines fundacionales.

   b) Ejercer la alta inspección, vigilancia y control de la Fundación.

   c) Aprobar el inventario, la Memoria de actividades, el Balance y la Cuenta de Resultados, así como los Presupuestos plurianuales y los correspondientes a cada ejercicio.

   d) Modificar el domicilio de la Fundación y determinar las sedes de sus establecimientos, delegaciones, si los hubiere.

   e) Modificar los Estatutos de la Fundación, cuando fuera preciso, y respetando en todo caso el fin fundacional.

   f) Acordar la fusión de la Fundación con otra u otras Fundaciones.

   g) Acordar la extinción de la Fundación y el programa de liquidación.

   h) Nombrar y cesar al Director de la Fundación.

**Artículo 9.-** *Patronos*

1. Podrán ser miembros del Patronato las personas físicas o jurídicas. Las personas físicas deberán tener plena capacidad de obrar y no estar inhabilitadas para el ejercicio de un cargo público. Las personas jurídicas deberán hacerse representar en el Patronato por una persona física.

2. Cuando el cargo del Patrono recaiga en una persona física deberá ejercerse personalmente y no podrá ser delegado. No obstante, cuando el mismo sea atribuido al titular de un cargo público o privado, podrá éste designar a una persona para que lo ejerza en su nombre.

3. Los miembros del Patronato ejercerán su cargo gratuitamente. No obstante, podrán ser reembolsados de los gastos debidamente justificados que el desempeño de sus funciones les ocasione.

## 1. SEKZIOA

**8. artikulua.-** *Patronatua*

1. Patronatua Fundazioaren gobernu eta ordezkaritzako organo gorena da eta Fundazioaren xedeak lortzeko beharrezko diren ahalmen guztiak izango ditu.

2. Bereziki, ondokoak dagozkio Patronatuari:

   a) Fundazioaren xedeak betetzen diren jagotea.

   b) Fundazioaren goi ikuskapena, jagotza eta kontrola egitea.

   c) Inbentarioa, jardueren memoria, balantzea eta emaitzen kontua nahiz urte askotarako aurrekontuak eta ekitaldi bakoitzerako aurrekontuak onestea.

   d) Fundazioaren egoitza aldatzea eta beraren establezimendu eta ordezkaritza egoitzak zehaztea, baldin eta horrelakorik badago.

   e) Fundazioaren estatutuak aldatzea, beharrezkoa denean, eta, beti ere, Fundazioaren xedea errespetatuz.

   f) Fundazioak beste fundazio batekin edo batzuekin egin beharreko bat-egiteak erabakitzea.

   g) Fundazioaren iraungipena eta likidazio programa erabakitzea.

   h) Fundazioaren zuzendaria izendatu eta kargutik kentzea.

**9. artikulua.-** *Babesleak*

1. Patronatuko kideak pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke. Pertsona fisikoek jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute eta ezin izango dira egon kargu publikoan jarduteko ezgaituta. Pertsona juridikoek pertsona fisiko bat izan beharko dute Patronatuan, euren ordezkari legez.

2. Babesle kargua pertsona fisiko bati dagokionean, bere buruz jardun beharko du eta ezin izango da eskuordetu. Hala ere, hori kargu publiko edo pribatu baten titular bati eratxikita dagoenean, pertsona bat izendatu ahal izango du bere izenean jardun dezan.

3. Patronatuko kideek dohainik jardungo dute karguan. Hala ere, beren eginkizunak egiteagatik dituzten gastuak ordaindu ahal izango zaizkie, baldin eta behar bezala justifikatzen badituzte.

TIMBRE FORAL
FORU SEILUA
25 PTA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
HOGEITABOST PTA
CLASE 2ª.
2. MOETA
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco
G 9841384

4. Los miembros del Patronato no podrán contratar con la Fundación, ya sea en nombre propio o de un tercero, salvo autorización del Protectorado.

**Artículo 10.-** *Composición*

1. El Patronato estará integrado, como miembros natos en representación de las Instituciones fundadoras, por:
   - El Consejero de Cultura del Gobierno Vasco
   - El Diputado General de Bizkaia
   - El Alcalde de Bilbao
2. Además el Patronato podrá acordar, con el voto favorable que se exige en el artículo 15.2 de los presentes Estatutos, la designación como Patronos de personas físicas o jurídicas que realicen contribuciones económicas, patrimoniales o científicas significativas a la Fundación, por un periodo máximo de cinco años, si bien podrán ser reelegidos por periodos de tiempo iguales, sin límite alguno.
3. Los Patronos cesarán en sus cargos en los casos previstos en la Ley, y, además los Patronos que no sean representantes de los fundadores podrán ser cesados en sus cargos cuando así lo acordara el Patronato con el voto favorable previsto en el artículo 15.2 de los presentes Estatutos.
4. Los Patronos natos no podrán ser suspendidos en el Patronato, asimismo, sólo podrán ser sustituidos cuando medie acuerdo previo y expreso de la propia Institución fundadora representada. La sustitución de los Patronos que en representación o por designación correspondan a las Instituciones fundadoras, deberá efectuarse por el órgano competente de aquélla a la que corresponda.
5. El resto de Patronos, tan solo podrán ser suspendidos en tal condición por violación grave de los intereses de la Fundación, determinados por resolución judicial.

**Artículo 11.-** *El Presidente y el Vicepresidente del Patronato*

1. El cargo de Presidente de la Fundación recaerá de forma rotatoria entre los tres patronos representantes de las Instituciones fundadoras, con una duración equivalente al año natural.

   El ejercicio del cargo se iniciará y finalizará, respectivamente, con el primer y último día del año que corresponda, de forma automática y sin necesidad de acuerdo expreso.

4. Patronatuko kideek ezin izango dute kontraturik egin Fundazioarekin, ez euren izenean, ez eta inorenean ere, Babesgoak horretarako baimena ematen duenean izan ezik.

**10. artikulua.-** *Osaketa*

1. Patronatuaren osoko kideak ondokoak izango dira, Erakunde fundatzaileen ordezkari gisa:
   - Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua
   - Bizkaiko diputatu nagusia
   - Bilboko alkatea
2. Gainera, Patronatuak erabaki ahal izango du, Estatutu hauetako 15.2. artikuluan eskatzen den behar besteko aldeko botoekin, babesle gisa pertsona fisiko zein juridikoak izendatzea, baldin eta Fundazioari diru nahiz ondare-ekarpen eta ekarpen zientifiko esanguratsuak egiten badizkiote, gehienez bost urteko epean. Dena dela, epe berdinerako hautatu ahal izango dituzte behin eta berriro, inolako mugarik gabe.
3. Babesleek euren karguak utziko dituzte Legean ezarritako kasuetan; gainera, fundatzaileen ordezkariak ez diren babesleak euren karguetatik kendu ahal izango dira, Patronatuak hala erabaki eta Estatutu hauetako 15.2. artikuluan ezarritako behar besteko aldeko boto ematen denean.
4. Babesle osoak ezin izango dira kargurik gabe geratu Patronatuan; era berean, bakarrik ordezkatu ahal izango dituzte, baldin eta aurretiaz eta beren-beregiko akordioa badago ordezkatutako Erakunde fundatzailearen aldetik. Ordezkaritzaz edo izendapenez Erakunde fundatzaileei dagozkien babesleen ordezkapena, dagokion erakundeko organo eskudunak egin behar du.
5. Gainerako babesleak bakarrik kendu ahal izango dira kargutik, baldin eta Fundazioaren interesen aurkako urratze larria egin badute, lege ebazpenez zehaztuta.

**11. artikulua.-** *Patronatuaren presidentea eta presidenteordea*

1. Fundazioaren presidente kargua txandaka izendatuko da Erakunde fundatzaileen hiru babesle ordezkarien artean, eta urtebete naturaleko epeko iraupena izango du.

   Karguaren ekitaldia dagokion urtearen lehenengo egunean hasiko da eta urtearen azken egunean amaituko da, automatikoki eta beren-beregiko erabakirik gabe.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

El Presidente de la Fundación lo será también del Patronato y ostentará la máxima representación de dicho órgano de gobierno, correspondiéndole, además de las facultades inherentes a su condición de patrono, la de representar a la Fundación en todos sus actos y contratos que deriven de los acuerdos del Patronato y otros órganos de la Fundación, así como en cuantos litigios, expedientes, cuestiones administrativas, gubernativas, judiciales y extrajudiciales se presenten, pudiendo otorgar a tal fin poderes generales para pleitos a favor de Procuradores y Abogados.

Corresponderá igualmente al Presidente convocar y presidir las reuniones del Patronato, de acuerdo con lo establecido en estos Estatutos y en las Leyes, dirigir las deliberaciones y ejecutar sus acuerdos.

2. Igualmente el cargo de Vicepresidente será rotatorio entre los representantes de las Instituciones fundadoras recayendo el cargo en aquél que en el ejercicio siguiente vaya a ostentar la condición de Presidente del Patronato.

**Artículo 12.-** *El Secretario*

1. El Patronato designará un Secretario, ya sea entre sus miembros, o ajeno al mismo, que actuará asimismo como Secretario del Comité Ejecutivo de la Fundación.

2. Corresponderá al Secretario, además de las funciones que le encomienden los presentes Estatutos, llevar y custodiar los respectivos Libros de Acta y expedir certificaciones de los acuerdos adoptados, tanto por el Patronato, como por el Comité Ejecutivo, con el visto bueno del Presidente.

**Artículo 13.-** *Reuniones y Convocatoria*

1. El Presidente convocará al Patronato cuantas veces lo estime oportuno, por propia iniciativa o a petición de una tercera parte de sus miembros. En todo caso, el Patronato se reunirá al menos, una vez dentro del primer semestre de cada año, con el fin de aprobar las cuentas del último ejercicio, y otra vez dentro del segundo semestre, para aprobar el Presupuesto del ejercicio siguiente.

2. Las convocatorias de las reuniones serán enviadas por el Secretario en representación del Presidente, a través de comunicación escrita dirigida a cada uno de los Patronos por cualquier medio que garantice su constancia con una antelación mínima de al menos 10 días, indicando el día, la hora y el lugar de celebración de la reunión y especificando el Orden del Día.

Fundazioaren presidentea Patronatuaren presidente izango da eta ordezkaritza gorena izango du gobernu-organo horretan; halaber, babesle den aldetik dituen ahalmenez gain, Fundazioa ordezkatu behar du Patronatuaren eta Fundazioaren beste organo batzuen akordioetatik eratorritako egintza eta kontratuetan. Era berean, Fundazioaren ordezkari izango da izan daitezkeen auzi, espediente nahiz administrazio-, gobernu-, lege- eta legetik kanpoko gaietan. Horretarako ahalmen orokorrak eman ahal izango dizkie Prokuradore eta Abokatuei auzietan.

Era berean, Presidenteak deitu behar ditu Patronatuaren bilerak, bai eta bilerotako buru izan ere, Estatutu hauetan eta Legeetan ezarritakoaren arabera; halaber, deliberazioak zuzendu eta erabakiak betearazi behar ditu.

2. Halaber, presidenteorde kargua ere txandaka izendatuko da Erakunde fundatzaileen ordezkarien artean; hurrengo ekitaldian Patronatuko presidente kargua izango duenak izango du indarreko ekitaldiko presidenteorde kargua.

**12. artikulua.-** *Idazkaria*

1. Patronatuak idazkari bat izendatuko du, patronatuko kideetako bat edo patronatutik kanpoko norbait; idazkari horrek, halaber, Fundazioaren Batzorde Betearazlearen idazkari gisa ere jardungo du.

2. Idazkariari, Estatutu hauek ematen dizkioten eginkizunez gainera, Akten Liburuak egin eta zaintzea dagokio, bai eta Patronatuak nahiz Batzorde Betearazleak hartutako erabakien ziurtagiriak luzatzea ere, beti ere, presidentearen oniritziarekin.

**13. artikulua.-** *Bilerak eta deialdia*

1. Presidenteak behar beste aldiz deitu ahal izango du Patronatua, bai bere ekimenez bai Patronatuko kideen herenak hala eskatuta. Nolanahi ere, Patronatua behin bilduko da gutxienez urteko lehenengo seihilekoan, azken ekitaldiko kontuak onartzeko, eta beste behin bigarren seihilekoan, hurrengo ekitaldiko aurrekontua onesteko.

2. Bileretarako deialdiak idazkariak bidaliko ditu Patronatuaren ordezkari gisa, babesle bakoitzari bidaliko dion jakinarazpenaren bidez, eta gutxienez 10 egun lehenago helduko dela bermatzen duen edozein bideren bidez. Jakinarazpenean bilera zein egun, ordu eta tokitan izango den azalduko da eta aztergaien zerrenda ere zehaztuko da.

TIMBRE FORAL
FORU SEILUA

25 PTA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA
HOGEITABOST PTA

G 9841999

CLASE 2ª.
2. MOETA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

3. Podrán asistir a las reuniones del Patronato, cuando sean requeridos para ello, los miembros del Comité Ejecutivo y el Director del Museo de Bellas Artes de Bilbao, quienes podrán participar en las deliberaciones que tengan lugar en dichas reuniones, si bien no tendrá derecho de voto en la adopción de acuerdos.

**Artículo 14.-** *Constitución*

1. El Patronato quedará válidamente constituido en primera convocatoria cuando concurran a la reunión, presentes o representados, la mitad más uno del número de miembros existentes en cada momento, siendo en todo caso necesaria la asistencia de los tres Patronos representantes de los fundadores.
2. Si no se alcanzara el quórum señalado en el apartado anterior, el Patronato se reunirá dentro del plazo de las tres horas siguientes, siendo suficiente para su válida constitución la asistencia de tres de sus miembros, siempre que esté presente el Presidente.
3. Con independencia de lo señalado en los dos apartados anteriores, el Patronato se entenderá convocado y quedará válidamente constituido cuando estén presentes todos sus miembros y acepten unánimemente la celebración de la reunión.

**Artículo 15.-** *Adopción de Acuerdos*

1. Los acuerdos, se adoptarán por mayoría de votos, con las excepciones previstas en los apartados 2 y 3 siguientes, y las demás que las Leyes establezcan.
2. Se requerirá el voto a favor de las dos terceras partes de los asistentes, incluyendo necesariamente el voto favorable de los Patronos representantes de los fundadores, para la adopción de los siguientes acuerdos:
   a) La modificación de los Estatutos.
   b) La fusión o extinción de la Fundación.
   c) La designación de nuevos Patronos y su cese, tal y como se regula en el artículo 10 de estos Estatutos.
   d) La designación y cese de los representantes de los anteriores en el Comité Ejecutivo de la Fundación, según se establece en el artículo 17.1 c) de los presentes Estatutos.
   e) El nombramiento y cese del Director.
3. Para aprobar los Presupuestos de cada ejercicio se requerirá el acuerdo adoptado por mayoría de votos, incluyendo necesariamente el voto favorable de los Patronos

3. Batzorde Betearazleko kideak eta Bilboko Arte Eder Museoko zuzendaria joan ahal izango dira Patronatuaren bileretara, hala eskatzen zaienean. Horiek parte hartu ahal izango dute bileretan gertatzen diren eztabaidetan, baina ez dute boto eskubiderik izango erabakiak hartzeko.

**14. artikulua.** *Eraketa*

1. Patronatua balioz eraturik geratuko da lehenengo deialdian, unean-unean dauden kideetatik erdia gehi bat, bai kideak beraiek bai euren ordezkariak, bilerara joaten direnean; nolanahi ere, fundatzaileen hiru ordezkari babesleek nahitaez egon behar dute bileran.
2. Aurreko idatz-zatian adierazitako quoruma lortu ezean, Patronatuak bilera egingo du ondorengo hiru orduetako epean; balioz era dadin, beharrezkoa izango da kideetatik hiru egotea, baldin eta presidentea badago.
3. Aurreko bi idatz-zatietan adierazitakoa gorabehera, Patronaturako deialdia egindakotzat hartuko da eta balioz geratuko da eraturik, kide guztiak bertan daudenean eta bilera egitea aho batez onartzen dutenean.

**15. artikulua.** *Erabakiak hartzea*

1. Erabakiak boto gehiengoz hartuko dira, ondorengo 2 eta 3. idatz-zatietan ezarritako salbuespenak eta Legeak ezartzen dituen gainerakoak salbu.
2. Bilerara azaltzen direnen bi herenek aldeko botoa eman beharko dute; fundatzaileen ordezkari babesleek nahitaez eman beharko dute aldeko botoa, erabaki hauek hartzeko:
   a) Estatutuak aldatzea.
   b) Fundazioaren bat-egitea edo iraungipena.
   c) Babesle berriak izendatzea eta kargutik kentzea, Estatutu hauetako 10. artikuluan arautzen den bezala.
   d) Aurrekoen ordezkariak Fundazioaren Batzorde Betearazlean izendatzea eta kargutik kentzea, Estatutu hauetako 17.1c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.
   e) Zuzendaria izendatzea eta kargutik kentzea.
3. Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuak onesteko, beharrezkoa izango da boto gehiengoz hartzen den erabakia, eta nahitaez izan beharko da Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

representantes del Gobierno Vasco, de la Diputación Foral de Bizkaia y del Ayuntamiento de Bilbao.

4. El Presidente del Patronato no tendrá ni ejercitará voto dirimente o de calidad.

5. Los acuerdos del Patronato se transcribirán en un Libro de Actas. El Acta de cada reunión, firmada por el Presidente y el Secretario, recogerá todos los acuerdos, así como el resultado de las votaciones, incluidos los votos particulares.

SECCIÓN 2ª

Artículo 16.- *El Comité Ejecutivo*

1. El Comité Ejecutivo, salvo avocación expresa por parte del Patronato, ejercerá las funciones de gestión, gobierno, administración y representación de la Fundación, siempre que legalmente no correspondan al Patronato de manera indelegable.

2. En particular, corresponde al Comité Ejecutivo:

   a) Aprobar a propuesta del Director, el Plan de Actuación y los Proyectos de Presupuestos plurianuales y/o anuales.
   b) Aprobar la Programación Artística propuesta por el Director.
   c) Aprobar las propuestas de adquisiciones de obras de arte, así como aceptar depósitos, donaciones y legados.
   d) Aprobar las normas de funcionamiento para el Museo.
   e) Aprobar las propuestas de colaboración entre el Museo de Bellas Artes de Bilbao y otros Centros y Museos, en el desarrollo de funciones de conservación, investigación, educación, de registro, de diseño, de servicios de información, de captación de fondos, administrativas y otras que pudieran derivarse de la gestión del Museo.
   f) Aprobar el préstamo temporal de los fondos artísticos a disposición de la Fundación.
   g) Cualquier otra facultad que a favor de la "Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao" se derive de los acuerdos suscritos entre las Instituciones fundadoras.
   h) Nombrar y cesar al Comité Asesor Artístico.
   i) Cualquier otra facultad que, de acuerdo con los presentes Estatutos, no esté atribuida a otro órgano de la Fundación.

Bilboko Udalaren ordezkari babesleen aldeko botoa.

4. Patronatuaren presidenteak ez du izango eta ez du emango boto erabakigarri edo kalitatezkoa.

5. Patronatuaren erabakiak Akten Liburuan jasoko dira. Bilera bakoitzaren aktak, presidenteak eta idazkariak sinatuta, erabaki guztiak jasoko ditu, bai eta bozketen emaitzak ere, boto bereziak barne.

2. SEKZIOA

16. artikulua. *Batzorde Betearazlea*

1. Batzorde Betearazleak, Patronatuak beren-beregi galdekapena egiten duenean izan ezik, Fundazioaren kudeaketa, gobernu, adminis-trazio eta ordezkaritzako eginkizunak izango ditu, baldin eta legez Patronatuari ez badagozkio eskuordetu ezineko moduan.

2. Bereziki, Batzorde Betearazleari dagokio:

   a) Zuzendariak proposatuta, Jarduketa Plana eta urte askotarako edota urteko aurrekontuak onestea.
   b) Zuzendariak proposatutako arte-programazioa onestea.
   c) Artelanak eskuratzeko proposamenak onestea eta gordailu, dohaintza eta ondareak onartzea.
   d) Museoaren funtzionamendurako arauak onestea.
   e) Bilboko Arte Eder Museoaren eta beste Zentro eta Museo batzuen arteko lankidetza proposamenak onestea ondoko eginkizunok garatzeko: artapena, ikerketa, heziketa, erregistroa, diseinua, informazio-zerbitzuak, fondoak hartzea, bai eta administraziokoak eta Museoa kudeatzeagatik sor daitezkeen gainerako guztiak ere.
   f) Fundazioaren esku dagoen arte-ondarea aldi baterako lagatzea onestea.
   g) Erakunde fundatzaileekin sinatutako akordioetatik "Bilboko Arte Eder Museoa"rentzat eratorritako beste edozein ahalmen.
   h) Batzorde Aholkuemaile Artistikoa izendatu eta kargutik kentzea.
   i) Estatutu hauen arabera, Fundazioaren beste organo bati eratxikita ez dauden ahalmen guztiak.

TIMBRE FORAL
FORU SEILUA

25 PTA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
VEINTICINCO / HOGEITABOST PTA

G 9841987

CLASE 2ª.
2. MOETA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

**Artículo 17.-** *Composición*

1. El Comité Ejecutivo estará integrado por un máximo de 10 miembros, en la forma que a continuación se establece:
   a) Los Patronos a los que se refiere el artículo 10.1 de los presentes Estatutos.
   b) Tres representantes designados por las Instituciones fundadoras, uno por cada una de ellas.
   c) Los cuatro restantes podrán ser designados, en su caso, por acuerdo del Patronato adoptado con el voto favorable que exige en el artículo 15.2, en representación de las personas o entidades que, según lo previsto en el artículo 10.2 de los presentes Estatutos, llegaran a ser Patronos de la Fundación.
2. Los miembros del Comité Ejecutivo ejercerán su cargo gratuitamente.

**Artículo 18.-** *El Presidente del Comité Ejecutivo*

El Presidente del Comité Ejecutivo lo será el que, en cada momento, ostente la presidencia del Patronato, a quien corresponderá convocar y presidir las reuniones, dirigir las deliberaciones y ejecutar los acuerdos que se adopten.

**Artículo 19.-** *Reuniones y Convocatoria*

1. El Presidente convocará al Comité Ejecutivo cuantas veces lo estime oportuno, por propia iniciativa o a petición de una tercera parte de sus miembros, y en todo caso, una vez cada semestre, con antelación a las reuniones del Patronato.
2. Las convocatorias de las reuniones serán enviadas por el Secretario en representación del Presidente, a través de comunicación escrita dirigida a cada uno de los miembros del Comité Ejecutivo por cualquier medio que garantice su constancia, con una antelación mínima de al menos 10 días, indicando el día, la hora y el lugar de celebración de la reunión y especificando el Orden del Día.
3. Podrá asistir a las reuniones del Comité Ejecutivo, el Director del Museo de Bellas Artes de Bilbao, quien podrá participar en las deliberaciones que tengan lugar en dichas reuniones, si bien no tendrá derecho de voto en la adopción de acuerdos.

**Artículo 20.-** *Constitución*

1. El Comité Ejecutivo quedará válidamente constituido en primera convocatoria cuando concurran a la reunión la mitad más uno del

**17. artikulua.** *Osaketa*

1. Batzorde Betearazlea 10 kidek osatuko dute, gehienez, eta kide horiek honelaxe izendatuko dira:
   a) Estatutu hauetako 10.1. artikuluak aipatzen dituen babesleak.
   b) Erakunde fundatzaileek izendatutako hiru ordezkari, bat Erakunde bakoitzeko.
   c) Gainerako lau kideak Patronatuak hartutako erabaki bidez izenda daitezke, 15.2. artikuluak eskatzen duen aldeko botoarekin, Estatutu hauetako 10.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Fundazioaren babesle izatera hel daitezkeen pertsona edo erakundeen ordezkaritzan.
2. Batzorde Betearazleko kideek doan jardungo dute karguan.

**18. artikulua.** *Batzorde Betearazlearen presidentea*

Batzorde Betearazlearen presidentea unean-unean Patronatuaren presidente dena izango da. Presidentearen ardura izango da bilerak deitu eta bileron buru izatea, eztabaidak zuzentzea eta hartutako erabakiak betearaztea.

**19. artikulua.** *Bilerak eta deialdia*

1. Presidenteak nahi beste aldiz deitu ahal izango du Batzorde Betearazlea, bai ekimen propioz bai batzordeko kideen herenak hala eskatuta, eta, nolanahi ere, seihilero behin, Patronatuaren bilerak egin baino lehen.
2. Bileretarako deialdiak idazkariak bidaliko ditu presidentearen ordezkari gisa, Batzorde Betearazlearen kide guztiei jakinarazpen bana bidaliz, iristen zaiela bermatzen duen eran; gutxienez 10 egun lehenago bidali beharko ditu jakinarazpenak, eta bilera zein egunetan, ordutan eta tokitan izango den zehaztu beharko du, bai eta aztergaien zerrenda zein izango den zehaztu ere.
3. Bilboko Arte Eder Museoko zuzendaria Batzorde Betearazlearen bileretara joan ahal izango da. Bilboko Arte Eder Museoko zuzendariak parte hartu ahal izango du bileretan gertatzen diren eztabaidetan, baina ez du izango boto eskubiderik erabakiak hartzeko.

**20. artikulua.** *Eraketa*

1. Batzorde Betearazlea balioz geldituko da eraturik lehenengo deialdian, unean-unean dauden kideetatik erdiak gehi bat bertaratzen direnean;

número de miembros existentes en cada momento, siendo en todo caso necesaria la asistencia de al menos, un miembro que lo sea por designación de cada uno de los fundadores.

2. Si no se alcanzara el quórum señalado en el apartado anterior, el Comité Ejecutivo se reunirá dentro del plazo de las tres horas siguientes, siendo suficiente para su válida constitución la asistencia de cualquier número de miembros, con un mínimo de tres, y siempre que esté presente el Presidente.
3. Para la adopción de cualquiera de los acuerdos a que se refiere el artículo 16.2. a) y b) de los presentes Estatutos se requerirá la presencia de, al menos, un representante por cada una de las Instituciones fundadoras.
4. Con independencia de lo señalado en los apartados anteriores de este artículo, el Comité Ejecutivo se entenderá convocado y quedará válidamente constituido cuando estén presentes todos sus miembros y acepten unánimemente la celebración de la reunión.

**Artículo 21.-** *Adopción de Acuerdos*

1. Con excepción de lo previsto en el apartado 2 siguiente, los acuerdos se adoptarán por mayoría de votos. En todo caso, el voto del Presidente dirimirá los empates que pudieran producirse.
2. Para la adopción de los acuerdos que se refiere el artículo 16.2. a) y b) de los presentes Estatutos, se requerirá el acuerdo adoptado por mayoría de votos, incluyendo necesariamente el voto favorable de los representantes de cada una de las Instituciones fundadoras.
3. Los acuerdos del Comité Ejecutivo se transcribirán en un Libro de Actas. El Acta de cada reunión firmada por el Presidente y el Secretario, recogerá todos los acuerdos, así como el resultado de las votaciones, incluidos los votos particulares.

**Artículo 22.-** *Delegaciones y Apoderamientos*

El Comité Ejecutivo podrá delegar sus facultades en el Director ejecutivo así como nombrar apoderados generales o especiales con funciones mancomunadas o solidarias entre los miembros del mismo.

**SECCIÓN 3ª**

**Artículo 23.-** *Comité Asesor Artístico*

1. El Comité Asesor Artístico estará compuesto por las personas que acuerde el Comité Ejecutivo cuya renovación se producirá en el tiempo y forma que por éste se establezca.

nolanahi ere, fundatzaile bakoitzak izendatutako kide bat egon behar da nahitaez.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitako quoruma lortzen ez bada, Batzorde Betearazleak bilera egingo du ondorengo hiru orduetako epean; balioz eratu dadin, nahikoa izango da edozein kide-kopuru joatea, baina gutxienez hiru izan behar dira eta presidentea nahitaez egon behar da.
3. Estatutu hauetako 16.2.a) eta b) artikuluak aipatutako erabakietako bat hartzeko, beharrezkoa izango da gutxienez Erakunde fundatzaileen ordezkari bana izatea.
4. Artikulu honetako aurreko idatz-zatietan adierazitakoa gorabehera, Batzorde Betearazlea deituta eta balioz eratuta ulertuko da, kide guztiak bertan daudenean eta bilera egitea aho batez onartzen dutenean.

**21. artikulua.** *Erabakiak hartzea*

1. Erabakiak boto gehiengoz hartuko dira, ondoko 2. idatz-zatian ezarriko den salbuespena gorabehera. Nolanahi ere, presidentearen botoak erabakiko ditu gerta litezkeen berdinketak.
2. Estatutu hauetako 16.2. a) eta b) artikuluak aipatutako erabakiak hartzeko, beharrezkoa izango da erabakia boto gehiengoz hartzea; boto horien artean Erakunde fundatzaileen ordezkarien aldeko botoak egon behar dira.
3. Batzorde Betearazlearen erabakiak Akten Liburuan jasoko dira. Bilera bakoitzaren aktak, presidenteak eta idazkariak sinatuta, erabaki guztiak jasoko ditu, bai eta bozketen emaitzak ere, boto bereziak barne.

**22. artikulua.** *Eskuordetzeak eta ahalduntzeak*

Batzorde Betearazleak bere ahalmenak eskuordetu ahal izango dizkio zuzendari betearazleari eta ahaldun orokor edo bereziak izendatu ahal izango ditu batzordeko kideen artean, eginkizun mankomunatu zein solidarioak izango dituztenak.

**3. SEKZIOA**

**23. artikulua.** *Batzorde Aholkuemaile Artistikoa*

1. Batzorde Aholkuemaile Artistikoa Batzorde Betearazleak erabakitako pertsonek osatuko dute; kideok Batzordeak zehaztutako denboraz eta moduan ordezkatuko dira.

TIMBRE FORAL
FORU SEILUA

25 PTA — DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA — BIZKAIKO FORU ALDUNDIA — VEINTICINCO / HOGEITABOST PTA

G 9841983

CLASE 2ª.
2. MOETA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

2. El nombramiento de los miembros de este Comité Asesor Artístico deberá recaer en personas de reconocido prestigio cultural y artístico.

3. El Comité Asesor Artístico ostentará las facultades, no ejecutivas, que el Comité Ejecutivo le asigne.

4. Los miembros del Comité Asesor Artístico podrán concurrir a las sesiones del Comité Ejecutivo cuando fueren expresamente requeridos para ello, en el que tendrán voz, pero no voto, en cuantas cuestiones fuere solicitada su intervención.

5. El Comité Asesor Artístico se reunirá previa convocatoria del Director de la Fundación, quien ostentará su Presidencia.

6. Actuará como Secretario el miembro del Comité Asesor que, en cada caso, fuere designado.

**SECCIÓN 4ª**

**Artículo 24.-** *Director*

La gestión ordinaria de la Fundación corresponde al Director, al cual se le podrán encomendar entre otras las siguientes funciones:

a) La Jefatura superior y directa de todo el personal y servicios de la Fundación.

b) Proponer el plan de actuaciones y el presupuesto plurianual y anual de la Fundación.

c) Proponer el programa artístico para la Fundación.

d) Preparar y proponer la materia de reglamentación de servicios generales y especiales, así como cumplir y hacer cumplir la aprobada y las disposiciones de carácter general y local vigentes respecto al objeto social.

e) Estudiar y proponer las ampliaciones, reformas e innovaciones que considere convenientes y necesarias en los servicios e instalaciones, así como las obras de conservación, entretenimiento, reposición y la adquisición de fondos.

f) Expedir la documentación y cuidar de que se lleven los registros y estadísticas de operaciones y servicios realizados y certificar en todo lo relativo a los servicios encomendados a la Fundación.

g) Practicar aquellas actividades de gestión, estudio e iniciativa de propuestas encaminadas a conseguir una normal y buena explotación de la Fundación en su aspecto económico.

2. Batzorde Aholkuemaile Artistikoko kideak kulturan eta arte munduan izen handia duten lagunak izan behar dira.

3. Batzorde Aholkuemaile Artistikoak Batzorde Betearazleak esleitzen dizkion ahalmenak izango ditu, eta ez dira ahalmen betearazleak izango.

4. Batzorde Aholkuemaile Artistikoko kideak Batzorde Betearazlearen bileretara joan ahal izango dira, hala eskatzen zaienean; bilerotan parte ahal izango dute, baina ezin izango dute botorik eman.

5. Batzorde Aholkuemaile Artistikoa Fundazioaren zuzendariak aurretiaz deituta bilduko da. Batzordearen buru Fundazioaren zuzendaria izango da.

6. Kasuan-kasuan izendatzen den Batzorde Aholkuemaileko kidea izango da idazkaria.

4. **SEKZIOA**

**24. artikulua.** *Zuzendaria*

Zuzendariaren eginkizuna da Fundazioaren ohiko kudeaketa. Zuzendariak honako eginkizunak izango ditu:

a) Fundazioaren langile eta zerbitzu guztien burutza goren eta zuzena.

b) Fundazioaren jarduketa-plana eta urte askotarako nahiz urteko aurrekontuak proposatzea.

c) Fundazioaren egitarau artistikoa proposatzea.

d) Zerbitzu orokor nahiz berezien arautegia landu eta proposatzea, eta onetsitako araudia nahiz sozietatearen xedeari lotuta dauden indarreko xedapen orokor nahiz tokikoak bete eta betearaztea.

e) Zerbitzu eta instalazioetan egoki eta beharrezko jotzen dituen handitze, zaharberritze eta berrikuntzak aztertu eta proposatzea, bai eta artapen, entretenimendu eta birjartze lanak egitea eta ondarea eskuratzea ere.

f) Dokumentazioa banatu, egindako operazio eta zerbitzuen erregistro eta estatistikak egiten direla zaindu eta Fundazioaren esku utzitako zerbitzuei dagokienean den-dena egiaztatzea.

g) Arlo ekonomikoan Fundazioaren ustiapen egoki eta ona lortzera bideratutako proposamenak kudeatu, aztertu eta bultzatzera bideratutako jarduerak abian jartzea.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

h) Preparar, recoger y ordenar todos los asuntos y documentos que hayan de ser sometidos a estudio, conocimiento, despacho y aprobación del Comité Ejecutivo y Presidente.

i) Asistir con voz, pero sin voto, a las sesiones y reuniones del Patronato, Comité Ejecutivo y presidir la Comisión Asesora.

j) Preparar, tramitar y cuidar de la ejecución de los acuerdos y resoluciones adoptados por el Patronato y el Comité Ejecutivo.

k) Elevar al Comité Ejecutivo, al término de cada ejercicio, la Memoria comprensiva del desarrollo de su gestión y redactar la que el Comité Ejecutivo ha de elevar al Patronato.

l) Expedir órdenes de pago, realizar cobros y aprobar contratos.

m) Representar a la Sociedad en el otorgamiento de contratos y en el ejercicio de las acciones que a aquélla correspondan tanto en juicio como fuera de él.

n) Y cuantas otras se consideren adecuadas.

TÍTULO III

PATRIMONIO

**Artículo 25.-** *Patrimonio*

1. El patrimonio de la Fundación podrá estar constituido por toda clase de bienes y derechos susceptibles de valoración económica.
2. La administración y disposición del patrimonio corresponderá al Comité Ejecutivo en la forma establecida en estos Estatutos y de acuerdo con el marco de facultades y de disponibilidad que respecto del mismo se ostente.
3. El patrimonio de la Fundación estará integrado por:

   a) La dotación inicial recogida en la escritura fundacional.

   b) Las aportaciones procedentes, en su caso, de los miembros fundadores, y las que acepten voluntariamente satisfacer los restantes miembros del Patronato.

   c) Cualquier otro bien o derecho que en lo sucesivo adquiera la Fundación, por cualquiera de los medios admitidos en Derecho y, especialmente, en virtud de legados,

h) Batzorde Betearazleak eta presidenteak aztertu, ezagutu, despatxatu eta onetsi behar dituzten gai eta agiri guztiak prestatu, bildu eta ordenatzea.

i) Patronatuaren eta Batzorde Betearazlearen bilera eta batzarretara joatea, parte hartu baina botoa emateko eskubiderik gabe, eta Batzorde Aholkuemailearen buru izatea.

j) Patronatuak eta Batzorde Betearazleak hartutako erabaki eta ebazpenen betearazpena prestatu, tramitatu eta zaintzea.

k) Ekitaldi bakoitzaren amaieran, kudeaketaren nondik norakoak biltzen dituen Memoria igortzea Batzorde Betearazleari, batetik, eta Batzorde Betearazleak Patronatuari igorri behar diona idaztea, bestetik.

l) Ordainketa aginduak ematea, kobrantzak egitea eta kontratuak onestea.

m) Sozietatearen ordezkari izatea kontratuetan eta hari dagozkion ekintzetan, bai epaiketan, bai epaiketatik kanpo.

n) Bai eta egoki jotzen den beste edozein eginkizun ere.

III. TITULUA

ONDAREA

**25. artikulua.-** *Ondarea*

1. Fundazioaren ondarea diruz neur daitezkeen ondasun eta eskubide guztiek osatu ahal izango dute.
2. Ondarearen administrazio eta xedapena Batzorde Betearazleari dagokio, Estatutu hauetan ezarritakoarekin bat etorriz eta ondareari dagokionez dauden ahalmen eta baliabideen arabera.
3. Fundazioaren ondarearen osagaiak hauexek dira:

   a) Fundazioaren eskrituran jasotako hasierako zuzkidura.

   b) Kide fundatzaileen ekarpenak eta Patronatuko gainerako kideek beren kabuz egin ditzaketenak.

   c) Fundazioak, zuzenbidean onartutako bideetatik edozeinez, aurrerantzean eskuratzen duen beste edozein ondasun zein eskubide, eta, bereziki, beste pertsona, organismo eta erakunde

TIMBRE FORAL
FORU BEILUA
25 PTA
DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
HOGEITABOST PTA
CLASE 2ª.
2. MOETA
G 9841971
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

donaciones, aportaciones y subvenciones que le concedan otras personas, organismos e instituciones. La aceptación de donaciones, legados y herencias, corresponderá al Comité Ejecutivo y habrá de ser comunicada al Protectorado de acuerdo con lo previsto en la normativa vigente. Cuando las adquisiciones procedan de aportaciones efectuadas por cualesquiera de las instituciones fundadoras, en el inventario se dejará constancia de la procedencia de tales recursos, con expresión, en su caso, del porcentaje que corresponda a cada una de aquéllas.

d) Los frutos o rentas, productos o beneficios del patrimonio y de las actividades que realice la Fundación, así como las remuneraciones de los servicios que pueda prestar, de acuerdo con la legislación vigente.

e) Cualquier otro recurso en el marco legal de aplicación.

**Artículo 26.-** *Alteraciones patrimoniales*

El Patronato de la Fundación podrá, en todo momento, y cuantas veces sea preciso, a tenor de lo que aconseje la coyuntura económica, ejecutar las modificaciones, transformaciones, o conversiones que estime necesarias del capital de la fundación, con el exclusivo fin de evitar que éste, aún manteniendo su valor nominal, se reduzca en su valor efectivo o poder adquisitivo.

**Artículo 27.-** *Custodia del Patrimonio*

Para la custodia y salvaguarda del patrimonio de la Fundación se observarán las siguientes reglas:

a) Los bienes y derechos que integran el patrimonio deberán estar a nombre de la Fundación y habrá de constar en el Inventario de ésta y ser inscritos, en su caso, en los Registros correspondientes.

b) Los bienes inmuebles y los derechos reales se inscribirán a nombre de la Fundación en el Registro de la Propiedad. El resto de los bienes susceptibles de inscripción se inscribirán en el Registro correspondiente.

c) Los fondos públicos y los valores mobiliarios, industriales o mercantiles deberán depositarse, también a nombre de la Fundación, en establecimientos bancarios.

d) Los valores y metálico, los títulos de propiedad, los resguardos de depósito y cualesquiera otros documentos acreditativos de dominio, posesión, uso, disfrute o

batzuen legatu, dohaintza, ekarpen eta dirulaguntzen bidez eskuratzen dituenak. Dohaintza, legatu eta jaraunspenak Batzorde Betearazleak onartu beharko ditu, eta Babesgoari jakinarazi beharko zaio, indarrean dirauen arautegian ezarritakoaren arabera. Eskuratutakoa Erakunde fundatzaileen eskutik datorrenean, inbentarioan jakinaraziko da baliabideon jatorria, eta, hala badagokio, bakoitzari dagokion portzentaia zehaztuko da.

d) Fundazioaren ondarearen eta jardueren emaitza edo errentak, bai eta eman ditzakeen zerbitzuen ordainsariak ere, indarreko legeriarekin bat etorriz.

e) Ezar daitekeen legerian onartutako beste edozein baliabide.

**26. artikulua.** *Ondarearen aldaketak*

Fundazioaren Patronatuak, unean uneko egoera ekonomikoak gomendatzen duena aintzat hartuta, une oro eta nahi beste aldiz egin ahal izango ditu aldaketak, transformazioak edo eraldaketak Fundazioaren kapitalean; beti ere, kapitala, balio nominalari eutsi arren, benetako balioa edo erosteko ahalmena gal ez dezan.

**27. artikulua.** *Ondarea zaintzea*

Fundazioaren ondarea zaindu eta jagoteko, ondoko erregelok beteko dira:

a) Ondareko ondasun eta eskubideek Fundazioaren izenean egon behar dute, eta haren inbentarioan agertu beharko dute; halaber, bidezkoa bada, dagokien Erregistroetan inskribatuta egon behar dira.

b) Ondasun higiezinak eta eskubide errealak Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Inskriba daitezkeen gainerako ondasunak beraiei dagokien Erregistroan inskribatuko dira.

c) Fondo publikoak eta higikorren balioak, bai eta industriakoak eta merkataritzakoak ere, Fundazioaren izenean gordailatu beharko dira banku-establezimenduetan.

d) Baloreak eta eskudirua, jabetzako tituluak, gordailuaren gordeagiriak, eta jabaria, edukitza, erabilera, luperketa edo beste edozein eskubideren egiaztagiriak Fundazioaren izenean

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

cualquier otro derecho de que sea titular la Fundación, se depositarán a nombre de ésta.

e) Los demás bienes muebles serán custodiados en la forma que determine el Comité Ejecutivo. Se adoptarán cuantas medidas resulten indispensables a fin de garantizar la integridad y mejor custodia de todos los bienes que por propiedad o por disponer de cualquier título jurídico legítimo que habilite a la posesión constituyan el conjunto de fondos artísticos del Museo.

Todos estos bienes o derechos se especificarán en el Libro de Inventario, y en el que bajo la inspección del mismo, se consignarán todas las circunstancias precisas para su identificación y descripción.

Tal libro de inventario recogerá las adquisiciones de bienes amortizables efectuadas por la fundación, y en especial las de obra artística, dejando constancia de la procedencia de los recursos económicos con los que se hayan adquirido, en particular cuando constituyan recursos públicos destinados por las Instituciones fundadoras a tal objeto.

## TÍTULO IV

## RÉGIMEN ECONÓMICO

**Artículo 28.-** *Actividades empresariales*

La Fundación podrá realizar por sí misma actividades mercantiles o industriales cuando éstas tengan relación con los fines fundacionales o estén al servicio de los mismos.

**Artículo 29.-** *Actos de disposición o gravamen*

De los actos de disposición o gravamen sobre los bienes o derechos que formen parte de la dotación patrimonial, o estén directamente adscritos al cumplimiento de los fines, o su valor sea superior al veinte por ciento del activo de la Fundación que resulte del último balance anual, se dará cuenta al Protectorado.

**Artículo 30.-** *Contabilidad y rendición de cuentas*

1. La actividad contable de la Fundación se ajustará a las normas del Plan General de Contabilidad a cualesquiera otras que le sean específicamente de aplicación, así como a las exigencias de la legislación fiscal que le sean aplicables.
2. El Patronato aprobará y presentará al Protectorado dentro del primer semestre de cada año, la siguiente documentación:

   a) El Inventario, el Balance de Situación, la Cuenta de Resultados y la Memoria

gordailatuko dira, beraien titularra Fundazioa bera bada.

e) Batzorde Beterazleak zehazten duen bezalaxe zainduko dira gainerako ondasun guztiak. Hartu beharreko neurri guztiak hartuko dira, jabetzaz edo jabetzarako gaitzen duen beste edozein legezko titulu juridiko izateagatik Museoaren arte-ondarea osatzen duten ondasun guztiak bermatu eta hobeto zaintzeko.

Ondasun edo eskubide horiek guztiak Inbentarioaren Liburuan zehaztuko dira, eta liburuaren ikuskapenpean, identifikazio eta deskripziorako behar diren zirkunstantzia guztiak zehaztuko dira.

Inbentarioaren liburu horrek Fundazioak eskuratutako ondasun amortizagarriak bilduko ditu, batez ere artelanak, eta eskuratzeko erabilitako baliabide ekonomikoen jatorriaren berri emango dute, batez ere Erakunde fundatzaileek xede horretara bideratutako baliabide publikoak direnean.

## IV. TITULUA

## EKONOMI ARAUBIDEA

**28. artikulua.** *Enpresa jarduerak*

Fundazioak bere kabuz egin ahal izango ditu merkataritza zein industri jarduerak, baldin eta jarduerok zerikusirik badute Fundazioaren xedeekin edo beraien zerbitzura badaude.

**29. artikulua.** *Xedapen zein karga egintzak*

Ondasun eta eskubideen gaineko xedapen zein karga egintzak Babesgoari jakinaraziko zaizkio, baldin eta ondasun eta eskubideok ondare zuzkidurakoak badira, edo xedeak betetzeko zuzenean atxikita badaude, edo Fundazioaren aktiboaren ehuneko hogei baino gehiagoko balioa badute azken urtean egindako balantzean.

**30. artikulua.** *Kontabilitatea eta kontuak ematea*

1. Fundazioaren kontabilitate-jarduerak Kontabilitate Plan Orokorraren arauak beteko ditu, bai eta beren-beregi ezar daitezkeen beste guztiak eta ezar dakizkiokeen legeria fiskaleko eskakizunak ere.
2. Patronatuak, urteko lehenengo seihilekoan, ondoko agiriok onetsi eta aurkeztuko dizkio Babesgoari:

   a) Inbentarioa, egoeraren balantzea, aurreko ekitaldiko emaitzen kontua eta memoria

TIMBRE FORAL
FORU SELLUA

25 PTA
DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA
BOST PTA

G 9841967

CLASE 2ª.
2. MOETA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

Financiera del ejercicio anterior, en los que se reflejará la situación patrimonial, económica y financiera de la Fundación. La Memoria Financiera completará, ampliará y comentará la información contenida en el Balance y Cuenta de Resultados, y habrá de comprender el cuadro de financiación.

b) La Memoria expresiva de las actividades de la Fundación del año anterior, suficiente para conocer y justificar la finalidad fundacional, así como cualquier alteración, ya sea patrimonial o de sus órganos de gobierno y dirección.

c) La Liquidación del Presupuesto de gastos e ingresos del ejercicio anterior.

3. Sin perjuicio de cuantos deberes contables y presupuestarios estén establecidos para las Fundaciones en general, y de la presentación anual de cuentas ante el Protectorado, anualmente la Fundación se someterá a auditoría externa de cuentas.

**Artículo 31.-** *Presupuesto*

El Patronato aprobará anualmente un Presupuesto de ingresos y gastos correspondiente al ejercicio siguiente que será presentado al Protectorado dentro del último trimestre del año de su aprobación junto con una Memoria explicativa.

**Artículo 32.-** *Ejercicio económico*

1. El ejercicio económico será anual y coincidirá con el año natural.

2. El primer ejercicio económico comenzará el día de la constitución de la Fundación y finalizará el 31 de diciembre de ese año.

**Artículo 33.-** *Destino de ingresos y gastos de administración*

1. Los bienes y rentas de la Fundación, se entenderán adscritos de una manera directa e inmediata a la realización de los fines fundacionales. En todo caso, siempre que no vulnere las disposiciones legales, habrá de estarse a las condiciones o cláusulas en virtud de los cuales se haya incorporado cualquier tipo de bienes o derechos al patrimonio de la Fundación.

2. La Fundación programará periódicamente las actividades propias de su objeto y, a tal fin, se realizará anualmente la planificación de las prestaciones y se acordará su forma de realización y adjudicación.

finantzarioa; horietan Fundazioaren ondarearen, ekonomiaren eta finantzen egoera emango da aditzera. Memoria finantzarioak Emaitzen kontuan eta balantzean bildutako informazioa osatu, zabaldu eta komentatuko du, eta finantziazio-taula izan beharko du.

b) Fundazioak aurreko urtean egindako jarduerak azaltzen dituen memoria. Memoriak nahikoa izan behar du Fundazioaren helburua ezagutu eta justifikatzeko; era berean, izandako edozein aldaketa ere jaso behar du, bai ondarean izandakoak bai gobernu eta zuzendaritza organoetan izandakoak.

c) Aurreko ekitaldiko gastu eta diru-sarreren aurrekontuaren likidazioa.

3. Fundazioentzako, oro har, ezarrita dauden kontularitza nahiz aurrekontu betebeharren, eta, bereziki, Babesgoari urtero kontuak aurkeztu beharraren kalterik gabe, Fundazioak kontuen kanpo-auditoretza egingo du urtero.

**31. artikulua.** *Aurrekontua*

Patronatuak urtean-urtean onetsi beharko du ondorengo ekitaldiko diru-sarrera eta gastuen aurrekontua; ondoren, Babesgoari aurkeztuko dio onesten den urtearen azken hiruhilean, azalpen-memoriarekin batera.

**32. artikulua.** *Ekonomi ekitaldia*

1. Ekonomi ekitaldia urtekoa izango da eta bat etorriko da egutegiko urtearekin.

2. Lehenengo ekonomi ekitaldia Fundazioaren eraketa egunean hasiko da, eta urte horretako abenduaren 31n amaituko da.

**33. artikulua.** *Administrazioko diru-sarreren eta gastuen helburua*

1. Fundazioaren ondasun eta errentak zuzenean eta berehala egongo dira lotuta Fundazioaren xedeak egiteari. Nolanahi ere, legezko xedapenak hausten ez dituzten bitartean, Fundazioaren ondarera edozein motatako ondasun edo eskubideak sartzeko aintzat hartutako baldintzak edo klausulak hartu beharko dira kontuan.

2. Fundazioak xede dituen jarduerak programatuko ditu aldian-aldian eta, horretarako, urtero egingo da prestazioen plangintza eta, era berean, prestazio horiek egiteko eta esleitzeko modua ere onetsiko da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

3. A la realización de sus fines se destinará, en el plazo de tres años a partir del momento de su obtención, al menos el 70% de las rentas netas y otros ingresos que se obtengan por cualquier concepto, deducidos en su caso los impuestos correspondientes a los mismos.

   Las aportaciones en concepto de dotación patrimonial, bien en el momento de su constitución bien en un momento posterior, quedan excluidas del cumplimiento de este requisito.

   El resto de los ingresos deberá destinarse a incrementar la dotación fundacional, una vez deducidos los gastos de administración que no podrán exceder del 20%, salvo autorización expresa del Protectorado a instancia razonada de la Fundación, de acuerdo con lo previsto en las disposiciones legales y reglamentarias vigentes.

TÍTULO V

MODIFICACIÓN, FUSIÓN Y EXTINCIÓN

**Artículo 34.-** *Modificación*

El Patronato podrá acordar la modificación de los presentes Estatutos con el voto favorable que se establece en su artículo 15.2 siempre que sea respetado el fin fundacional, y de acuerdo con los requisitos establecidos en la normativa vigente.

**Artículo 35.-** *Fusión*

El Patronato podrá acordar la fusión de la Fundación con otra u otras fundaciones con el voto favorable que se establece en el artículo 15.2 de los presentes Estatutos, siempre que sea respetado el fin fundacional, y de acuerdo con los requisitos establecidos en la normativa vigente.

**Artículo 36.-** *Extinción y Liquidación*

1. La Fundación se extinguirá por las causas legalmente previstas en el artículo 33 de la Ley 12/1994, de 17 de Junio, y demás disposiciones que resulten de aplicación, así como en los siguientes supuestos:

   a) Por acuerdo unánime adoptado al efecto por los tres patronos representantes de las Instituciones fundadoras, a propuesta de cualesquiera de ellos, ratificado por los órganos de dichas Instituciones que han prestado el consentimiento para fundar cuando se omitan, alteren o desvirtúen los fines que se promueven con la constitución de la Fundación, o se produzca la pérdida por alguna de las Instituciones fundadoras de sus atribuciones competenciales en materia museística.

3. Lortu eta hiru urteko epean, gutxienez errenta garbien %70 bideratuko da xedeak betetzera, bai eta beste edozein kontzeptugatik lor daitezkeen beste diru-sarrera batzuk ere, beti ere, dagozkien zergak kenduta.

   Ondarearen zuzkidura kontzeptuagatikako ekarpenek, bai eraketaren unekoek bai ondorengoek, ez dute betekizun hori bete behar.

   Gainerako diru-sarrerak Fundazioaren zuzkidura handitzera bideratu behar dira, behin administrazio gastuak kenduta (gehienez %20), Fundazioaren instantzia arrazoituari Babesgoak emandako berariazko baimena dagoenean izan ezik, indarreko lege eta arau xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

V. TITULUA

ALDAKETA, BAT-EGITEA ETA IRAUNGIPENA

**34. artikulua.** *Aldaketa*

Patronatuak erabaki ahal izango du Estatutu hauek aldatzea, beti ere, 15.2. artikuluan ezarritako behar beste aldeko boto badago, Fundazioaren xedea errespetatzen bada, eta indarreko legerian ezarritako betekizunekin bat etorriz.

**35. artikulua.** *Bat-egitea*

Patronatuak erabaki ahal izango du Fundazioak beste fundazio batekin edo batzuekin bat-egitea, beti ere, 15.2 artikuluan ezarritako behar beste aldeko boto badago, Fundazioaren xedea errespetatzen bada, eta indarreko legerian ezarritako betekizunekin bat etorriz.

**36. artikulua.** *Iraungipena eta likidazioa*

1. Ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 33. artikuluan eta ezar daitezkeen gainerako xedapenetan legez ezarritako arrazoiak direla-eta iraungiko da Fundazioa, bai eta ondoko kasuetan ere:

   a) Xede horrekin Erakunde, fundatzaileen hiru babesle ordezkariek aho batez hartutako erabaki bidez, proposamena euretariko edozeinek eginda. Erabaki hori aipatutako Erakundeen organoek berretsi beharko dute, izan ere, baimena ematen dute eraketarako, Fundazioaren eraketarekin sustatu nahi diren xedeak ahaztu, aldatu edo desitxuratzen direnean edo Erakunde fundatzaileren batek Museoan dituen eskumenak galtzen dituenean.

TIMBRE FORAL
FORU SEILUA

25 PTA
DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
VEINTICINCO / HOGEITABOST PTA

G 9841955

CLASE 2ª.
2. MOETA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

b) Cuando concurra cualquier circunstancia que dé lugar a la gestión provisional por el Protectorado de Fundaciones, en cuyo caso el órgano competente tan sólo podrá proceder a la liquidación de la Fundación.

2. La extinción de la Fundación requerirá, en los casos en que proceda, acuerdo del Patronato adoptado con el voto favorable que se establece en el artículo 15.2 de los presentes Estatutos, que aprobará, igualmente, la propuesta de designación de liquidadores, el programa de actuación y el proyecto de distribución del producto derivado de la liquidación.

3. Los acuerdos relativos a los bienes y derechos que resulten de la liquidación fundacional, se sujetarán a las siguientes prescripciones:

a) En cuanto a los bienes y derechos adquiridos con las aportaciones de las Instituciones fundadoras, será cada una de éstas la que proponga, respecto a los efectivamente adquiridos con su aportación, el destino que a los mismos hubiera de darse, garantizando su adscripción pública que persiga fines análogos, preferentemente en el municipio de Bilbao o, en su defecto, y por este orden, en el Territorio Histórico de Bizkaia o en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) En lo que hace a los adquiridos a título oneroso por la Fundación al margen de las aportaciones de las Instituciones fundadoras, será el Patronato, oídas aquéllas, el que determine el destino que a los mismos hubiera de darse, garantizando igualmente su adscripción a una actividad pública que persiga fines análogos, preferentemente en el municipio de Bilbao o, en su defecto, y por este orden, en el Territorio Histórico de Bizkaia o en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Y respecto a los adquiridos a título gratuito por la Fundación, se estará a los términos o condiciones de su transmisión y, en su defecto, a lo dispuesto en el párrafo anterior.

b) Edozein arrazoi dela-eta behin-behineko kudeaketa Fundazioen Babesgoak hartu behar duenean bere gain; kasu horretan, organo eskudunak Fundazioaren likidazioa baino ezin izango du egin.

2. Fundazioa iraungitzeko, hala behar denean, Patronatuaren akordioa behar da, hain zuzen ere, Estatutu hauetako 15.2. artikuluan ezarritako aldeko boto-kopuruarekin egindakoa. Patronatuak, halaber, likidatzaileak izendatzeko proposamena ere onetsiko du, bai eta jarduketa-programa eta likidaziotik eratorritako produktuaren banaketa-egitasmoa ere.

3. Fundazioaren likidazioagatiko ondasun eta eskubideei dagozkien erabakiak ondoko preskripzioei lotuta egongo dira:

a) Erakunde fundatzaileen ekarpenak direla-eta eskuratutako ondasun eta eskubideei dagokienez, Erakunde bakoitzak proposatuko du, bere ekarpena dela-eta eskuratutakoei dagokienez, nora bideratu behar diren; dena dela, bermatu egin behar da antzeko xedeak dituen atxikipen publikoa, ahal dela Bilboko udalerrian edo, bestela, eta hurrenez hurren, Bizkaiko Lurralde Historikoan edo Euskal Autonomia Erkidegoan.

b) Erakunde fundatzaileen ekarpenen ordez, Fundazioak kostubidez eskuratutakoei dagokienez, Erakundeei entzun ondoren, Patronatuak zehaztuko du nora bideratu behar diren; dena dela, bermatu egin behar da antzeko xedeak dituen atxikipen publikoa, ahal dela Bilboko udalerrian edo, bestela, eta hurrenez hurren, Bizkaiko Lurralde Historikoan edo Euskal Autonomia Erkidegoan.

c) Eta Fundazioak doan eskuratutakoei dagokienez, transmisioaren termino edo baldintzek diotena hartu beharko da aintzat eta, horiek ezean, aurreko idatz-zatian xedatutakoa.

Fdo. M.Karmen Garmendia

Fdo. Josu Bergara

Fdo. Iñaki Azkuna